

ALTSASUN ATARIPEEN ERAIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Altsasun eraiki (edo legeztatu) gogo diren ataripeek, lurzatiko eraikigarritasuna ahitua badago ere, ondotik ematen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte:

_Bizitegiatarako hiri lurzoruan dauden lurzatietan baizik ez dira eraiki ahal izanen.

_Beheko solairuan edo terrazetan eraiki ahal izanen dira, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte. Orobat, patio itxietako lehen solairuan eraiki ahal izanen dira.

_Eraikin nagusiari itsatsirik eraikiko dira eta haien luze-zabalak hauek izanen dira gehienez:

.Garaiera gailurreraino: 3,5 metro.

.Luzera: erantsirik doan fatxadarena.

.Sakonera: 3,0 metro (estalkiaren proiektzioa solairuan).

.Estalkiaren malda: %30-40.

_Eraikuntzarako erabili beharreko materialak hauek dira:

.Egituran: zura edo obra fatxadan erabili bezalako materialaz jantzia.

.Estalkian: teila zeramikoa.

_Ataripeak irekiak izanen dira; ez dira ixten ahalko inolako sistema edo material erabilirik ere.

_Gutxienez ere 3,0 metroko tarte librea utzi beharko da (ataripearen luzerarekiko perpendikularra) lurzatiaren, eraikinaren edo terrazaren mugaraino.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ataripea eraiki aurretik, Udalaren obra lizentzia eskatu beharko da eta ondoko dokumentazioa erantsiko zaio eskariari:

_Ataripea lurzatian edo terrazan kokatzeko krokisa.

_Eraiki gogo den ataripearen krokisa, haren luze-zabalak zehaztuta.

_Aurrekontu xehekatua.

_Lurzati zedula eguneratua.

_Bizilagun elkartearen baimena.

_Teknikari eskudunek sinaturiko ziurtagiria, erabileraren gainkargen kalkulua egiaztatuko duena eraikuntzari buruzko AE-88 oinarritzko arauaren arabera.